

## **2010eko irailaren 29an atxilotu zituen euskal herritarren tortura salaketak:**

### **Juan Carlos Besance:**

Atxilotze unea nahiko bortitza izan zen. Etxeko atea bota zuten eta Carlos eta bere anaia atxilotu zituzten. Ondorengo miaketak nahiko lasai joan ziren.

Hasieran Guardia Zibilaren patrol batean sartu zuten, eta tratua nahiko lasaia izan zen une horretan. Baina ondoren auto batean sartu zuten eta hemen hasi zen bost egunez luzatuko zen infernua.

Autoan zihoala buruan poltsa jarri zioten, arnasarik gabe utziz, ia itotzeraino. Hiru aldiz errepikatu zioten poltsarena, eta autoan zihoala bi aldiz galdu zuen konortea. Bere gainean salto egiten zuten Guardia Zibilek eta oihuak eta mehatxuak etengabeak ziren.

Madrilera iritsi eta galdeketak hasi ziren. Bost egunez begiak antifaz batekin itxiak izan ditu, eta inkomunikazio aldia amaitzean denboraren nozioa erabat galdua zuen.

Egunero bi edo hiru galdeketa egin zizkioten, bakoitza bi ordukoak, abokaturik gabe eta Guardia Zibil pila bat inguruan zituela, tortura, mehatxu eta irain artean. Erabat legez kanpoko galdeketak.

Gerritik behera biluzten zuten eta flexioak egitera behartzen zuten, bitartean sabelean ostikoz jotzen zutelarik.

Manta batekin biltzen zuten, zintza batekin lotu eta eskuak goma espumarekin lotzen zizkioten, buruan poltsa jartzen zioten arnasarik gabe utziz eta barrabiletan ostikoak ematen zizkioten, kolpatu egiten zuten gorputzean, izerditan blai uzten zutelarik. Izerditan blai zegoela *frigorifikoa* deitzen zioten gela batetara eramaten zuten, non sekulako hotza egiten zuen. Dardarka hasten zen, ez zuen ezer ikusten baina sekulako hotza sentitzen zuen.

Gutxienez hamabi aldiz jarri zioten poltsa buruan, asko estutzen zioten, arnasarik gabe utziz, ia itotzeraino. Madrilen beste behin galdu zuen konortea.

Sprai moduko bat bota zioten buruan eta eskuetan, ilea gogortzen zitzaiola nabaritu zuen baina hortik aparte ez zuen ezer berezirik sentitu.

Galdeketetan ahots pila bat entzuten zituen, oihuak, familiarekin etengabeko mehatxuak, anaiarekin etengabeko mehatxuak, ilobarekin etengabeko mehatxuak. Berak argi du bere anaia berari mehatxu egiteko helburuarekin atxilotu zutela. Argi du hasieratik bazekitela ez zuela ezer, baina hala ere hor izan zutela hiru egunez, presio bide bezala.

Deklarazioa ikastera behartu zuten, eta ikasitakoa botatzera deklarazio poliziala egiteko unean. Bost egunez oso gutxi jan zuen, eta ez zuen lorik egin.

Azken egunean erabat jota zegoen, ezin zuen gehiago, eta pixka bat lasaitu zen Guardia Zibilaren jarrera.

Lehen ez zuen inolako arazorik begietan baina orain malkoak erortzen zaizkio eta ez du ondo ikusten.

## **Xabier Atristain:**

Atxiloketa unea lasaia izan zen. Guardia Zibilaren autoan sartu zutenean hasi zen bost egunez luzatuko zen torturaren infernua.

Autoan poltsa jarri zioten buruan, oso estu, arnasarik gabe utziz eta ia itotzeraino. Bi aldiz galdu zuen konortea Madrilera bidean. Argi du Guardia Zibilek oso kontrolatua zutela noiz arte eduki poltsa buruan, noiz galduko zuen konortea etab.

Madrilera iritsi bezain laster hasi ziren Guardia Zibilaren galdeketak, luzeak, Guardia Zibil askoren parte hartzearekin eginak, abokaturik gabeak, erabat legez kanpokoak.

Poltsa askotan jarri zioten buruan, estutuz, arnasarik gabe uzteraino. Bi aldiz botaka egin zuen, ez zuen ezer botatzeko eta bilisa botatzen zuen.

Goma espumarekin biltzen zuten, izerditan blai zegoela buruan poltsa jartzen zioten. Ondoren ur hotza botatzen zioten gorputzean sekulako kontrastea eraginez.

Bi aldiz takikardiak eman zion eta medikamentua eman zioten, lasaigarriak edo antzeko zerbait. Hala ere azken unea arte jarraitu zuten tortura sesioekin.

Kolpeak, ariketa fisikoak eta mehatxuak etengabeak izan ziren. Bere neskalagunarekin mehatxu egin zioten. Besteak beste bala bat ukitu arazi zioten eta bala hori bere neska inplikatzeko erabiliko zutela adierazi zioten.

Buruan zerbait beroa ematen ziotela nabaritu zuen. Orain azala joana du burutuko zati batean.

Ariketa fisikoak egin arazi dizkiote eta bost egunez ez du lorik egin, ezta jan ere.

Aipagarria da oso honakoa. 2. deklarazio poliziala egitean, non bere ofizioko abokatuak parte hartzen zuen, ofizioko abokatu honek uko egin zion deklarazio poliziala sinatzeari, ikusten zuelako bere bezeroa zein egoeretan zegoen. Adierazi zuen ez zuela sinatuko eta ez zegoela ados inkomunikazio aldiarekin.

Atristainen kasuan honako legez kanpoko jarduerak ere salatu nahi ditugu:

- Xabier Atristain Miarrizteko aireportuan aurkeztu eta atxilotu zuten eta gerora euroagindu bidez Espainiaratua izan zen. Orain atxilotu duten kausa nagusi horrengatik epailearen aurrean deklaratu zuen dena ukatuz.
- Hilabete batzuen buruan libre uzten dute baina ondoren Guardia Zibilak atxilotu egiten du. Bost egunez inkomunikaturik izan ostean deklarazio polizialean bere buruaren aurkako hainbat kargu onartzen ditu, baina epailearen aurrean berriz dena ukatzen du eta torturak salatzen ditu. Alegia, epailearen aurrean egon den bi aldietan dena ukatu du, baina Guardia Zibilaren esku egon den denboran bere buruaren aurkako deklarazioak egin ditu, ofizioko abokatuak ere onartu ez duen deklarazio polizialean.
- Egitate nagusi beragatik ezin dira bi prozedura judizial ireki. Argi dago prozedura berriaren helburua Atristain atxilotzea eta inkomunikatzea zela. Juridikoki erabat legez kanpoko da egin dutena.

- Prozedura honetan elementu berriak baleude atxilotzeko agindu zezaketen baina zuzenean epailearen aurrera eraman behar zuten legez.
- Atristainen abokatuek dena salatu dute Entzutegian baina oraingoz ez diote jaramonik egin salaketari. Hala ere, salatzen jarraituko dute.

### **Jose Luis Besance:**

Beste bi atxilotuekin batera atxilotu zuten baina larunbatean gelditu zen libre.

Madrilera bidean mehatxuak, kolpeak eta galdeketak jasan zituen eta Madrilen lasaitu zen bere aurkako jarrera.

Bere ziegako atea irekita uzten zuten, beste bi atxilotuen oihuak eta tortura sesioak entzuten zituelarik.

### **Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren salaketa:**

- Euskal herritarren aurkako tortura salaketa berri hauen aurrean konpromiso argiak eskatzen ditugu. Zentzu honetan, Euskal Herriko eragile politiko, sozial eta sindikalei, Arartekoari eta Erakunde nagusiei salaketa hauen aurrean pentsatzen dutena esateko gonbidapena luzatzen diegu.
- Torturak salatzea estrategia baten barruan dagoela diotenei honako galderari erantzuteko deia egiten diegu: Nola esplika daiteke pertsona batek bere buruaren aurkako deklarazio polizialak egitea, jakinda hauek epaiketan froga bezala erabiliko direla eta bera urte luzez espetxeratzeko balioko dutela? Nola esplikatu dezakete Atristainekin gertatua, non ofizioko abokatuak bera ukatu egin den deklarazio poliziala sinatzera?
- Beste bortxarik ezean Espainiako Gobernuak bortxarik basatiena mahai gainean jartzen jarraitzen du. Euskal Herrian abian den prozesu politikoa baldintzatu nahi dute, amildegira eraman. Ez dute inolako borondaterik herri hau sufrimenduaren zirkulutik ateratzeko, eta horretarako sufrimendu gehiago sortzea da hartu duten erabakia.
- Alde bateko distentsio keinuak ez du beste aldearen errepresio eta jazarpen itsua gelditzea ekarri, ezta ekarriko ere. Herritarren presioak, erakunde eta eragileen lanak soilik ekarriko du errepresioa gelditzea, eta bide horretan indarrak biderkatu beharra dagoela uste dugu. Ezin dugu onartu euskal herritar bat gehiago torturatua izatea.
- Jakinarazi nahi dugu azken atxilotuen tortura testigantzak munduko erakunde ezberdinetara eramango ditugula. Bereziko Venezuelako Gobernuari, Madrilen duen enbaxadoreari eta herrialde horretako erakunde eta mugimendu politikoei azken atxilotuek jasandako torturen lekukotzak bidaliko dizkiegu. Honekin batera Nazio Batuen Erakundeko begiraleek egin dituzten informe eta eskaeren berri ere emango diegu.